

## Futbola

LEGORRETAKO JOKALARIAK LAU URTEKO KONTRATUA SINATU DU, 2.000 MILIOIKO KLAUSULAREKIN

# Jokatzeko aukera gehiago ikusten dituelako dator Lasa Athleticera

Susmoak egiaztatu egin dira, eta Lizarazuk ez du Athleticen jarraituko datorren denboraldian. Laster bete dute Hendaiakoak utzi duen hutsunea. Ordezkoa Mikel Lasa da. Azken urteak Real Madriden pasatu eta gero Euskal Herriko talde batera itzuliko da.

Iñigo Olabarri / Bilbo

LAU urterako kontratua eta 2.000 milioi pezetako klausula (80 milioi libera). Mikel Lasaren fitxaketa azaltzeko Athleticen bidali oharrak datu bi horiek baino ez ditu aipatzen. Bixente Lizarazuk uko egin dio Athleticen jarraitzeari, eta hark utzitako lekua berehala bete dute zuzendaritzakoek: Mikel Lasa izan da hautatua. Zenbait iturriren arabera, Athleticen 150 milioi pezeta ordaindu dio Real Madridi atzelaria ekartzeko (sei milioi libera).

Hemendik aurrera zuri-gorritz jantziko den jokalariaentzat Bixente Lizarazuren ihesa erabakigarria izan da bera Athleticera etortzeko orduan. Lizarazu ez dagoenez, hasierako hamaikakotetan tokia hartzea errazago ikusten du horrela legorretakoak. «Orain 25 urte dauzkat, eta adin honekin niretzat garrantzitsuena jokatzeko da, eta aurten gaizki pasatu dut kirol aldetik», esan zuen atzo Lasak. Denboraldi honetan oso gutxi jokatu du Real Madriden.

Alkorta Athleticera joateak ere bere garrantzia izan duela gaineratu zuen Lasak. «Rafa han egoitea sinatzeko beste motibo bat da, baina baita Alkiza bezalako beste jokalaririk ez egotea ere; berarekin jubenilak ginenetik jokatu dut», esan zuen. Realak ere fitxatzeko interesa erakutsi duela argitu zuen Lasak berak, baina Aranzabal lateralean dabilela kontuan hartuz gero, errazago ikusten du Athleticen hamakakoan toki bat aurkitzea.

Mikel Lasarentzat hirugarren taldea izango da Athletic: aurretik Realean eta Real Madriden egon da. Donostiako taldean hiru denboraldi egin zituen Legorretakoak, harik eta 1991. urtean Real Madridera fitxatu zuen arte. Real Madriden egin ditu, beraz, azken sei urteak. Hala ere, Madrilgo taldean ez du aukerarik izan eman dezakeena erakusteko. Fabio Capelloren aginduetara egin duen 1996-97ko denboraldian 12 partidutan bakarrik jokatu du, horietatik bitan bakarrik izan da titular. Hori dela eta, oraindik ere Real Madridera bi urterako kontratua zeukan arren talde aldazteaz ebatzi du.

**Luis Fernandezek erabat onetsi du fitxaketa** • Luis Fernandezek Lasa «jokalaririk gaztea» dela eta «taldeari asko eman» diezaiotkeen



Mikel Lasa, Realean aurka Anoetan jokatuako partiduan.

JACOBA MANTEROLA

la esan zuen atzo. Fitxaketarekin gustura dagoela gaineratu zuen. «Ez nuen gauza askorik esan Lasaren fitxaketaz; esan nuen bakarria e bai izan zen. Hemengo jokalaria da. Madrilen jokatu du eta oraindik 25 urte dauzka, beraz, gaztea da. Uste dut taldeari asko emateko moduan dagoela. Fitxaketa honekin erabat ados nago. Pozik nago fitxaketa-ekin».

Larrazabalek azken urte biatko lateralen fitxaketak direla-eta hainbat galderari erantzun behar izan die. Aurreko urtean Lizarazu zetorrela-eta taldea uztea ere pentsatu zuen. Hala ere, denboraldian hainbat norgehiagoka jokatu ditu. Lasaren fitxaketa dela eta, hainbat galderari erantzun behar izan zien atzo ere Loukoak.

Larrazabalek adierazi zuenez, «ustekabeko fitxaketa izan da Lasarena. Lizarazuren antzerako ezaugarriak dauzka». Hala ere, ez du gehiegi kezkatzen postu berean beste jokalaririk izateak, «aurten 37 partiduko jokatu ditut eta erakutsi dut Lizarazurekin batera ere jokatzeko gai izan naitela. Neure buruarekin konfiantza handia daukat, eta datorren urteko egoera aurtengoaren antzerakoa izango da, besterik gabe».

**Estibariz bere etorkizuna argitu zain** • Estibariz bere etorkizuna dela-eta kezkatuta dago. Ekainaren 30ean amaitzen zaio Athleti-

cekin daukan kontratua, eta ez daki ezer taldeak dituen asmoz. Luis Fernandezekin hitz egin nahi du jarraituko duen ala ez jakiteko. «Nire etorkizunaz ez dakit ezer», esan zuen jokalaria, «berrien zain nago». «Uste dut datorren urteko taldea nola gertatzen den ikusten ariko direla nirekin zer egin erabakitzeko.

Entrenatzailearekin hitz egin dut asteon, eta amaierara arte itxaroteko eskatu zidan», gaineratu zuen Estibarizek.

Edu Estibarizek baditu beste talde batzuen eskaintzak, «baina ez dut gehiegi pentsatu eskaintza horietan. Lanik gabe ez naiz gertuko, baina nire helburua Athleticen jarraitzea da».

## Klausulan egon da desadostuna

EZ zuen beharbada azaldu nahi izan, baina Luis Fernandezi min egin dio Lizarazu joateak. «Auzi hau eraman dutenek ondo jokatu dute. Lehendakariak eta gai hori daramatenek seriotasunez jokatu dute. Bixente gustura egon zedin saiatu gara. Inork ezin digu ezer esan alde horretatik, are gutxiago lehendakariari eta Javi Uriari. Taldeak eman egin dio eta antzerako erantzuna espero zuen. Ezin dena gertatu da, zuk eman eta beste aldetik ezer ez jasozte». Une oro taldearen jarre-arekin ados dagoela azpimarratu zuen, «bakoitzak jakin behar du nora doan. Talde batekin lau urterako fitxatzen baduzu jakin egin behar da nora zoazen. Bakoitzak bere kontzientziak agintzen dion bezala jokatu behar du».

Horrela mintzatu zen Luis Fernandez Lizarazuk klausula handitzeko orduan hartu zuen jarreraren gainean. Lizarazuk zenbait eskaintza jaso ditu urtean, Athleticen jasotzen zuena baino diru gehiagokoak. Taldeak eskaintza haiek berdintzeko egindako saioak gustura utzi du jokalaria. Baina, era berean, Lizarazuk jaso beharreko diru kopuruak gora egingo zuenez, klausula ere handitzea eskatzen zion zuzendaritzak. Denboraldi hasieran 600 milioi pezetako klausula zeukan Lizarazuk (24 milioi libera) eta kontratua hobetutakoan 1.500 milioi pezetara igo nahi izan dio Athleticen zuzendaritzak (60 milioi libera). Hendaiako jokalariek ez zuen onartu eta negoziaketa haustea erabaki zuen. Jokalariaren ordezkariek esan zuenez, Bixente Lizarazuk datorren denboraldian Bayernen jokatu du seguruenik. X

| HERCULES   |  | ATHLETIC   |  |
|--|--|--|--|
| <p>Entrenatzailea: Quique Hernandez</p> <p>Aulkian: 21 Rufai, 23 Miljanovic, 4 Lledo, 11 Palomino, 14 Rodriguez</p> <p>Etxean: Irabazi 9, Berdindu 3, Galdu 8, Golak alde 23, Golak kontra 23</p> <p>Orokorrean: 90-91, 92-93, 94-95</p> |  | <p>Entrenatzailea: Luis Fernandez</p> <p>Aulkian: 13 I. Etxeberria, 21 Larrazabal, 12 Carlos Garcia, 6 Urrutia, 18 Alkiza, 8 Guerrero, 9 Ziganda</p> <p>Kanpoan: Irabazi 6, Berdindu 7, Galdu 7, Golak alde 29, Golak kontra 32</p> <p>Orokorrean: 90-91, 92-93, 94-95</p> |  |
| <b>AZKEN EMAITZAK</b>  |  |  |  |
| <p>Mari 13</p> <p>Varela 15, Pavlicic 5, Anton 3</p> <p>Ferreras 8, Parra 6, Paquito 20, Paqui 28</p> <p>Diego 24, Alfaro 19, Amato 2</p>  |  | <p>Valencia 1</p> <p>Andrinua 5, Karanka 4, Larrazabal 10</p> <p>Estibariz 20, Vales 14, Cortina 29</p> <p>Goikoetxea 7, Edu Alonso 24, J.Etxeberria 17, Urzaiz 11</p>   |  |

## «Ez goaz eguzkia hartzera»

Hamaikakoetan sartzeko aukera gutxien izan duten jokalariek hartuko dute parte hasieratik Herculesen aurka. Hala agindu zuen Luis Fernandezek. Dena erabakita dagoen arren, irabaztea dute helburu zuri-gorriek. «Amaiera polita izango litzateke azkenengo bost partiduar jarraian irabaztea», zioen Fernandezek atzo. Aitor Larrazabal ere ildo beretik mintzatu zen, «ez goaz eguzkia hartzera», esan zuen jokalariek.